

2009ko abuztuaren 6an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

6. Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da, idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

4.- ANTXON GOMEZ LORENTE

5.- NAIARA ESNAL HUEGUN

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Aktak onartu .

2008ko apirilak 23 eta ekainak 11 egunetako udalbatza aktak, idazkariak idatzitakoak, udalbatzarkideek onartu dituzte eta adostasun adierazgarri izenpetu egin dituzte.

2.- 2008 urteko Kontu Orokorra onartu

Idazkariak azaldu duenez, 2008 urteko Kontu Orokorrari Kontuen Batzorde Bereziak apirilaren 29an eman zion oneritzia eta ondoren Aldizkari Ofizialean maiatzaren 15ean argitaratu zen. 15 eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Idazkariak ondoren jasotako taulak laburbildu ditu.

Edukiari dagokionez jarraian jasotakoa dago Kontu Orokor baitan:

Lehenik: 2008 urteko aurrekontuaren likidazioa. Honen barruan dago “altxortegi gerakina”-ri dagokion taula. Hau “aurrekontu-kontabilitate” kontzeptupean dago.

Bigarrenik, idatzizko agiriak, honako edukiarekin: Memoria: Honen barruan daude:

- “Aurkezpen oinarriak” eta “ balorazio arauak”
- Ondare Kontabilitatea eta Aurrekontu emaitzak bateratzea
- Finantziazio Taulak

Hirugarrenik, beste taula hauek:

- Kontu Balantzea : epealdiko mugimenduak adierazten ditu (Aktibo barruan: ibilgetuak, zordunak, erosketak eta gastuak; pasibo barruan: oinarritzko finantziaketa, hartzekodunak, salmentak eta sarrerak; aktiboa eta pasiboa zenbateko berberakoak dira)
- Galera eta irabazi Kontua (Zor / Hartzeko; Ekitaldiko emaitza: mozkina)
- Egoera balantzea

BOZKETA: Alde, 4 bozka. Abstentzioa: 1.

AKORDIOA: Aiako Udalbatzak, gehiengoz, onartu du 2008ko aurrekontuari dagokion Kontu Orokorra.

3.- Urola Kostako Udal Elkarteko Lankidetzaren hitzarmena

Zaborraren jectioa eta zabortejiaren itxieraren inguruan, Urola Kostako Udal Elkarteako zuzendaritza batzordeak, martxoaren 5eko bilkuran bi hitzarmen onartu zituen eta ondorioz eskatu die elkarteko udalei udal batzarretan onar ditzatela.

Alkateak azaltzen du Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak uztailaren 16tik aurrera Urtetako zabortejiaren ardura hartu duela eta proposamenaren onarpena justifikatzen du.

Antxon Gomez-ek erantzuten dio aztertzen ari diren gaia udal batzarretik pasa aurretik Gobernu Batzordean hitzegiteko gaia zela. Eta zaborra kudeatzeko beste eredu baten beharra dagoela, Usurbilgo atez-ateko eredia azalduz. Baita ere zentralizazio horrek, autonomi lokala eta komarkala ekiditzen duela.

Alkateak ondoren beste azalpen hauek egiten ditu; dauden datuen arabera Usurbilgo ereduaz hain baikor izateko arrazoirik ez dela eta gainera etxez-etxeke eredia ezinezkoa litzatekeela Gipuzkoa osora zabaltzea; erraustegia azken pausoa dela ,bitartean zaborra gutxitzeko edo ezabatzeko beste aktuzio batzuk behar dituen.

Antxonek bere aldetik Usurbilgo esperientziara bueltatuz adierazten du bilketa boikoteatu egin dela bai kanpo eta herrian bertan ere. Eta azken finean gai honetan bi proiektuen talka ematen ari dela.

BOZKETA : 5 botu aldeko eta botu bat kontra (Antton Gomez)

Beraz, gehiengo absolutu legalarekin hartu da ondoko **AKORDIOA:**

1.- *“Urteta zabortegia itxi, zigilatu eta etorkizunean mantentze lanak egiteko estaldura fondoaren nahikotasuna bermatzeko 2007ko maiatzaren 15ean Udal Elkarteak eta udalek sinatutako lankidetzaren hitzarmena eguneratzen duena” **onartzea.*** Eta,

2.- *“Urola kostako Udal Elkartearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, Gipuzkoako Ondakinen Kontsultazioari ordaindu behar zaion hiri hondakinen kudeaketaren tarifaren ekarpen-sistema finkatzen duena” **onartzea.***

3.- Alkateari bi hitzarmen horiek sinatzeko ahalmena ematea.

4.- Bake epaile titularra eta ordezkoa lau urteetarako izendatzea

Udalerrri honetako Bake –epaile titularra et Ordezko –Epailea lau urtetarako izendatuak izan ziren eta epe hori bukatu dela eta EAE ko Auzitegi Nagusiak udalari eskatzen dio berriro ere postu horiek betetzeko proposamena egin dezan.

Kontuan hartuta, deialdi publikoa egin ondoren 2 pertsonak azaldu dutela gogoia postu horiek betetzeko, aho batez erabaki da:

“ Auzitegi Nagusiari proposatzea Bixente zuloaga Epaile-titular eta Gema Etxabe Epaile-ordezko izendatu ditzan “

Bilera bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2009ko abuztuaren 7an.

IGOR ITURAIN IBARGUREN

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

ANTXON GOMEZ LORENTE

NAIARA ESNAL HUEGUN

Idazkari-kontuhartzailea.